

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Euskalduna Jauregia, A.B.k, Bilboko Musika eta Biltzar Jauregiaren ustiapenaren titularra den aldetik, honakoa du oinarrizko helburu 2014ko ekitaldiari begira kulturaren, biltzarren eta bileren arloan jarduera-maila onei eustea.

Aurreikuspenen arabera, biltzarretako jarduera areagotu egingo da 2013. urtekoaren aldean. Kulturaren arloan, ordea, ez da halakorik gertatuko, aurreikuspenen arabera aurreko ekitaldian lortutako jarduera-maila zertxobait jaitsiko baita.

Gaur egun biltzarren arloan geure bezeroekin lortu ditugun konpromisoak kontuan hartuta, badugu 2014. urterako jarduerak arlo horretan gora egingo duela aurreikusterik. Edonola ere, gaur egungo egoera ekonomikoari erreparatuz gero, ziurgabetasun handia dago kontsumoaren etorkizuneko portaeraren inguruan, eta administrazio publiko guztiek egindako kontu-sailak murriztu egin dira. Hori dela eta, badirudi arlo kulturalerako jarduerak behera egingo duela 2013. urtekoaren aldean.

Azken ekitaldiotako joeraren haritik, aurreikuspenen arabera, 2014. urtean gure jatetxeetako eta aparkalekuko emakidadunen diru-sarrerak gutxitu egingo dira, 2013an lortutakoen aldean.

Diru-sarrera horiei eta 2014. urterako aurreikusitako jarduerari esker, geure zerbitzuak emateko behar ditugun gastuak estali ahal izango ditugu.

2012. urtean instalazioak handiagotu genituenez, posizio ona dugu biltzarren sektorean. Hori dela eta, 2014. urtean, biltzarren arloko jardueran eta diru-sarreretan aurreikusi dugun gehikuntza lortu eta Euskaldunak biltzarretako jauregien esparruan erdietsi duen posizio pribilegiatuari eutsi ahal izango diogu.

Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna S.A., como titular de la explotación del Palacio de la Música y de Congresos de Bilbao, tiene como objetivo fundamental para el ejercicio 2014 mantener unos niveles satisfactorios de actividad tanto en el apartado cultural como en el congresual y de reuniones.

En el apartado de actividad congresual se ha previsto un incremento sobre la actividad realizada en 2013, no así en el cultural ya que prevemos una ligera disminución de la actividad alcanzada en el ejercicio anterior.

Los compromisos a fecha de hoy alcanzados con nuestros clientes en el apartado congresual nos permite prever un incremento de actividad, para el año 2014, en éste capítulo de actividad. Sin embargo con la situación económica actual, el nivel de incertidumbre existente sobre el futuro comportamiento del consumo, así como la disminución de partidas realizadas por todas las administraciones públicas nos aboca a vaticinar una disminución del apartado de actividad cultural con respecto a 2013.

Siguiendo la tendencia de los últimos ejercicios, prevemos para el año 2014 una disminución de los ingresos provenientes de nuestros concesionarios de restaurantes y aparcamiento con respecto al año 2013.

Estos ingresos y actividad prevista para año 2014, nos permitirá cubrir los gastos necesarios para la prestación de nuestros servicios.

El efecto de la ampliación de nuestras instalaciones realizada en el año 2012, nos ha facilitado una posición en el sector congresos que en 2014 nos permite el incremento previsto de nuestra actividad e ingresos en el capítulo congresual y mantener la posición privilegiada que ostenta Euskalduna en el sector de palacios de congresos.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Era berean, aurreko ekitaldietan bezala, gure kudeaketa-sistemaren hazkuntza eta etengabeko hobekuntza izango dira 2014ko ekitaldiko helburu nagusiak. Hartara, kalitate-arloen integrazioa sendotuko da zerbitzugintzan, ingurumenaren arloko portaeran, laneko arriskuen prebentzioan eta DALCO arauen arabera eraikin osoan ezarri beharreko irisgarritasun unibertsalaren hobekuntzan.

Ekintza-planak eta bertako hobekuntza-ekintzak abian jartzean, honako hauxe lortu ahal izango dugu: geure bezeroen gogobetetasun-indizeetan erdietsitako maileri eustea eta areagotzea; langileen motibazioa zein inplikazioa handitzeko moduko metodoak ezartzea; langileak eurak etengabeko prestakuntzaren bidez birziklatzea; eta gero eta zorrotzagoa den merkatuaren premien araberrako instalazioak eskaintzea.

**1. 2013. urtearen amaierarako aurreikusitako egoera**

Konpainiaren aktibo finkoak 1.211.930 euro gehitu dira 2013ko ekitaldian, 2011. urtean instalazioak handiagotzeko eta berritzeko hasitako proiektuaren jarraipen moduan egindako inbertsioen ondorioz.

2013ko ekitaldian jardueraren eta okupazioaren arloan lortutako indizeak onak izan direla esan beharra dago. Hala ere, oso kontuan hartu behar dugu nolakoa izan den eragile ekonomiko guztietan eragina izan duen egoera ekonomikoa.

Okupazioaren eta jardueraren arloko indize horiei esker, aurten ere Euskaldunak sektorean duen posizio pribilegiatuari eutsi ahal izango diogu. Beraz, Estatuko sailkapeneko lehenengo artean egongo da berriro.

Aurten ere, AENOR ziurtapen-enpresak gure kudeaketa-sistema abalatu du marka berritzeko kasuan kasuko auditorien bitartez: kalitatearen arloan, UNE / ISO 9001 / 2000 arauen arabera; ingurumenaren arloan, UNE - EN ISO 14001:2004 arauen arabera; eta, laneko arriskuen prebentzioaren arloan, OHSAS 18001:2007 arauaren arabera.

Así mismo y al igual que en ejercicios anteriores, la mejora continua y el crecimiento de nuestro Sistema de Gestión es considerado objetivo importante del ejercicio 2014, consolidando la integración de las áreas de calidad en la prestación de los servicios, en el comportamiento medioambiental, en la prevención de los riesgos laborales, en la mejora de accesibilidad universal según normas DALCO en la totalidad del edificio.

La ejecución de los planes de acción y sus correspondientes acciones de mejora pretenden mantener e incrementar los niveles alcanzados en los índices de satisfacción de nuestros clientes; la aplicación de métodos que nos permitan aumentar la motivación e implicación del personal, el reciclaje mediante la formación continua y una oferta de instalaciones acorde con las necesidades de un mercado cada vez más exigente.

**1. Situación previsible a finales del año 2013**

Los activos fijos de la compañía se han incrementado, durante el ejercicio 2013, en un total de 1.211.930 € producto de las inversiones realizadas como continuación de nuestro proyecto de ampliación y renovación de instalaciones iniciado en el año 2011.

Los índices de actividad y ocupación alcanzados en el ejercicio 2013 los debemos de considerar como satisfactorios sin olvidar la coyuntura económica que afecta al conjunto total de los agentes económicos.

Estos índices de ocupación y actividad nos permite, un año más, mantener a Euskalduna una posición de privilegio en el sector, continuando entre las primeras del ranking estatal.

La empresa de certificación AENOR, un año más ha avalado, mediante las correspondientes auditorias de renovación de marca, nuestro Sistema de Gestión según normas UNE / ISO 9001 / 2000 en el apartado de calidad, en el apartado medioambiental según normas UNE – EN ISO 14001:2004 y en el apartado de prevención de riesgos laborales OHSAS 18001:2007

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

2013. urtean, instalazioak handiagotzeko proiektuan hartutako konpromiso moduan, AENOREk kasuan kasuko auditoriaren bidez eta UNE 170001-2:2007 arauaren arabera ziurtatu du gure irisgarritasun unibertsala kudeatzeko sistema.

Modu berean, 2013. urtean, instalazioak handiagotzeko proiektuan hartutako konpromiso moduan, Euskaldunak berak LEED O&M ziurtagiria lortu du (Lidergoa Energia eta Ingurumen Diseinuan eta Eraikinen Jarduera eta Mantentze-lanak). Ziurtagiri hori, hain zuzen ere, Washingtonen egoitza duen U.S. Green Building Council-ek ematen du (USGBC), eta abalatu egiten du Euskaldunak bertan badagoela nazioartean eraikin iraunkor moduan aitortutako sistemarik.

Bestetik, gure kudeaketa-sistemak ere arrakastaz gainditu du ICTEK biltzar-jauregiarako ezarrita daukan UNE 187004:2008 arauaren berrikuspena.

2013. urtean, aurreko ekitaldietan bezala, zenbait ekintza-plan jorratu dira, eta prozesuen kudeaketa hobetu dute, baita kasuan kasuko adierazleen berrikuspenaren bidez egindako kontrola ere.

## 2. 2014. urterako aurreikusitako egoera

Aurreikuspenen arabera, 2014. urtean, ekipamenduak ikuskatzen eta berritzen jarraituko dugu. Izan ere, handiagotzeko proiektuan bertan zehaztuta badaude ere, egin gabe daude oraindik. Horrela, bada, egin egiten direnean, gure jardueraren garapenerako ezinbestekoak diren altzariak eta ekipamendua berritu ahal izango ditugu.

Horrez gain, kasuan kasuko ekintzak egiten jarraituko dugu, geure instalazioak hobetzeko eta irisgarritasun unibertsalerako DALCO irizpideetako betekizunei erantzun hobea emateko.

Jauregiko bertako jarduerari dagokionez, aurreikusitako egoera ekonomikoa aztertu eta geure jarduera-sektorean ezarri ondoren, itxita ditugun konpromisoak kontuan hartuz gero, biltzarren arloko jardueragatiko fakturazioak gora egingo du, eta arlo kulturalako diru-sarrerak behera egingo dute, gure aurreikuspenen arabera.

En el año 2013 y, como compromiso adquirido en el proyecto de ampliación de instalaciones, AENOR ha certificado mediante la correspondiente auditoría nuestro sistema de gestión según norma UNE 170001-2:2007 de Accesibilidad Universal.

Así mismo, en el año 2013 y, como compromiso adquirido en el proyecto de ampliación de instalaciones, Euskalduna ha obtenido la certificación LEED O&M (Liderazgo en Energía y Diseño Ambiental Operación y Mantenimiento para Edificios Existentes) que concede el U.S. Green Building Council (USGBC) con sede en Washington, que avala la existencia en Euskalduna de un sistema internacionalmente reconocido como edificio sostenible.

Así mismo nuestro Sistema de Gestión también ha superado con éxito la revisión de la Norma UNE 187004:2008 que para Palacios de Congresos tiene establecida el ICTE.

En el año 2013, al igual que en ejercicios anteriores, se han abordado planes de acción que han mejorado tanto la gestión de los procesos así como su control mediante la revisión de los oportunos indicadores.

## 2. Situación prevista para el año 2014

Está previsto que, en el año 2014, continuemos la revisión y renovación de equipamientos que estando detallados dentro del proyecto de ampliación aún están pendientes de ejecutar y que supondrán la renovación de equipamiento y mobiliario vital para el desarrollo de nuestra actividad.

Continuaremos realizando las acciones pertinentes para mejorar nuestras instalaciones y dar una mejor respuesta a los requerimientos de los criterios DALCO de accesibilidad universal.

En cuanto a la actividad propia del Palacio, tras el análisis de la situación económica prevista, el traslado de la misma a nuestro sector de actividad y teniendo en cuenta los compromisos ya cerrados prevemos un incremento en la facturación de la actividad del área congresual y una disminución de ingresos del capítulo cultural.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Geure emakidadunen bidez erdietsitako diru-sarrerei dagokienez, jabetxeetako emakidagatiko diru-sarrerak gutxitu egingo direla aurreikusi dugu, merkatuaren eta azken urteotako fakturazioaren bilakaeran antzemandako joeraren ondorioz.

Gainerako emakidadunei erreparatuz gero, badirudi 2013. urtean lortutako diru-sarrerak bere horretan iraungo dutela.

Langileengatiko gastuen kapituluan, 2013. urtekoen aldean soldatak izoztu egingo direla adierazi da aurrekontuan. Hain zuzen ere, esperientziarekin eta antzintasunarekin lotutako kontzeptuen zentzuzko lerraduraren ondorioz gehituko dira ordainsari horiek.

Aldi baterako langileen kapituluan, gaixotasunagatiko ustezko bajak estaliko dira, baita bi langilek adingabeak zaintzeko lehendik esleituta duten lanaldi-murrizketa ere.

Gaur egun, produktu-buruen arloko txandakako bi kontratu daude abian aldi baterako kontratuen kontzeptuaren barruan, eta bere horretan iraungo dute 2014. urtean.

Kanpoko Zerbitzuak estaltzeko erabilitako gastuaren kontu-saila murriztu egingo da, aurkakoak diren bi eraginaren ondorioz. Batetik, gastuetako zenbait kapitulu berrikusi eta murriztu egingo dira, kostuak hobeto egokitzeko abian jarritako ekintzen ondorioz. Bestetik, prezioetarako aurreikusitako gehikuntzaren azpitik dagoen prezio-lerradura ere hartu da kontuan.

Era berean, 2014ko ekitaldiko inbertsioetarako kontu-saila ere aurreikusi da, 2013. urtean berritu eta ordezkatu gabe utzitako ekipamenduetarako. Horrez gain, kontu-sail berrietan ere inbertituko da, kostuak murriztu ahal izateko; energiaren kostua, esate baterako.

En cuanto a los ingresos provenientes de nuestros concesionarios, se ha previsto una disminución de los ingresos de la concesión de restauración como consecuencia de la tendencia observada en la evolución del mercado y de la facturación de los últimos años.

Para el resto de concesionarios, se prevé el mantenimiento de los ingresos alcanzados en el año 2013.

Dentro del capítulo de gastos de personal se ha presupuestado una congelación salarial sobre las retribuciones del año 2013, las cuales se ven incrementadas por el lógico deslizamiento de conceptos relacionados con la experiencia y antigüedad.

En el capítulo de personal temporal, se prevé la cobertura de posibles bajas por enfermedad, así como la existente reducción de jornada para el cuidado de menores que disfrutan dos personas de la plantilla.

En la actualidad existen, dentro de este concepto de contratos temporales, dos contratos relevo con la denominación de jefes de producto que se mantendrán durante el año 2014.

La partida de gasto destinada a la cobertura de Servicios Exteriores una disminución como consecuencia de dos efectos de signo contrario. De una parte, se plantea una revisión y disminución de algunos capítulos de gasto, como motivo de las acciones emprendidas para una mejor acomodación de los costes. Por otra parte, se ha considerado un deslizamiento de precios por debajo del incremento previsto de precios.

Se ha previsto también una partida para inversiones en el ejercicio 2014, dirigidas a la renovación y reposición de equipamientos no realizada en el ejercicio 2013, así como la inversión en nuevas partidas que incidan en la reducción de costes como es el energético.

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

3. Aurrekontuko inbertsioen zenbatekoak eta norakoak

Jauregiak abian jarri zenetik garatutako jarduera kontuan hartuta, okupazio-maila oso handia izan dela nabarmendu beharra dago. Bestetik, ekipoak eurak ere zaharkituta daude, hamabi urte baino gehiago daramatzatelako abian. Gainera, epe ertain eta luzerako zenbait plan ere ezarri dira, energiaren kontsumoa murrizteko, ekipamendu eszenikoko funtsezko zenbait atal berritzeko... Hori guztiari dela eta, honako hauxe izango da inbertsioetarako aurrekontua:

3. Importes y destinos de las inversiones presupuestadas

Considerada la actividad mantenida por el Palacio en sus años de funcionamiento, que ha supuesto unos niveles de ocupación muy altos; la obsolescencia propia de equipos, que tienen más de doce años de funcionamiento, y teniendo en cuenta el inicio de algunos de planes a medio y largo plazo como: la reducción de consumo energético, la renovación de partes vitales de nuestro equipamiento escénico, etc. se presenta el siguiente presupuesto para inversiones:

Ibilgetu inmateriala Inmovilizado Inmaterial	160.000.-
Aplikazio informatikoak. Prozesuen kudeaketa / Aplicaciones informáticas Gestión de procesos	120.000.-
Web orri berria / Nueva página Web	40.000.-
Ibilgetu materiala . / Inmovilizado Material	2.377.740.-
Ekipamendu eszenikoko hagak kudeatzeko mahai berria jartzea / Nuevo pupitre para la gestión de varas del equipamiento escénico	361.500.-
Kanpoko Totem Led identifikatzailea jartzea / Totem Led identificador exterior	250.000.-
Auditoriumeko eta A1 zein A3 aretoetako eskailera-mailetako argi-seinaleak aldatzea / Modificar señalización luminosa en los peldaños de las sala Auditorio, A1 y A3	225.000.-
Ikuskizunetarako argiak ordezkatzeta / Reposición de focos espectaculares	200.000.-
Biltzarretarako altzariak berritzea / Renovación del mobiliario de congresos	180.000.-
Auditoriumeko eszenatokiko zorua ordezkatzeta / Reposición suelo escenario Auditorio	100.000.-
Jatetxeetako ekipamendua berritzea / Renovación del equipamiento de restaurantes	90.000.-
Jatetxeetako jardueretarako argi-sistema egokitzea / Adecuación del sistema de iluminación para actividades de restauración	80.000.-
Biltzarretarako altzariak ordezkatzeta / Reposición sillas de congresos	80.000.-
Instalazioak egokitzea, instalazioetarako irisgarritasuna hobetzeko / Acondicionamiento de instalaciones para la mejora de la accesibilidad de instalaciones	70.000.-
Ikus-entzuleentzako igogailua egokitzea barruko zerbitzuari begira / Adecuación de ascensor de público para servicio interno	65.000.-
Eserlekuak ordezkatzeta / Reposición butacas	65.000.-
Barruko informazio-elementuak jartzea / Elementos de información Interior	60.000.-



2014

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORRAK  
PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

**Txostena**  
**Memoria**

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Auditoriumeko Intercom jartzea / Intercom auditorio	60.000.-
Kontrol zentralizatua kudeatzeko sistema hobetzea / Mejora del sistema de gestión de control centralizado	60.000.-
Barria halleko eszenatokirako trusta jartzea / Trust para escenario hall Barria	60.000.-
Barria halleko eta aretoko akustika hobetzea / Mejora de la acústica de hall y sala Barria	50.000.-
Jatetxeetako aulkiak ordezkatzeta / Sillas restaurantes	50.000.-
Eszenatokiko zuntz optikoa aldatzea / Cambio fibra óptica escenario	40.000.-
Sabai eta hormetako megafonia berritzea / Renovación megafonía techos y paredes	31.000.-
Eszenatokiko indar-hartuneak eta argiak jartzea / Tomas de fuerza y alumbrado en escenario	30.500.-
Plataforma nagusietarako baranda berriak jartzea / Barandillas nuevas para plataformas principales	27.531.-
CCTVko goiburuak berritzea / Renovación de cabeceras de CCTV	20.000.-
Ekipo informatikoak berritzea / Renovación equipos informáticos	20.000.-
Mikrofonoak ordezkatzeta / Reposición microfonía	20.000.-
A3 aretoa erregulatzea / Regulación sala A3	16.000.-
Barria aretoan aldi baterako itzulpengintzarako sistema jartzea / Sistema de traducción simultánea sala Barria	14.522.-
Spliterra eta iragazkiak jartzea / Spliter y filtros	12.000.-
Airea berritzeko patioko espala zuzentzea / Correcciones espala patinillo	10.864.-
Orrazi-makinak babestea / Protecciones máquinas en peine	10.843.-
Segurtasun-sokak jartzea / Instalación líneas de vida	6.479.-
Tuneleko erauzgailu eta haizagailuen gelako eskalak eta barandak jartzea / Instalación de escalas y barandillas en sala de extractores y ventiladores del túnel	6.076.-
Maskor akustikoko lokailu-sistemak aldatzea / Cambio sistemas de amarre concha acústica	5.425.-